

IRAKASKUNTZA-GIDA

2012/13

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

1. maila

IRAKASGAIA

25786 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Historia

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Deskriptorea:

Irakasgaiak ikasleari jarduera fisikoak praktika, ezagutza eta eskuhartze eremu bezala aurkezten dizkio, bere egungo konfigurazioaren eragile diren prozesu historikoen ezagutzatik abiatuz. Egungo aroko mendebaldeko Europan zentratzen da. Lagungarria da ikasleek uler eta balora ditzaten jarduera fisikoen dibertsitatea eta bere egungo egoera eta joerak.

Sailak onartutako data:

Irakasleak: Fco. Javier Ruiz de Arcaute. Pedagogian lizentziatua.

Irakasgaiaren gaitasunak

1. Jarduera fisikoen eta bere praktika, ezagutza eta esku-hartze eremuaren dibertsitatea aztertzea, gure ingurunean identifikatu ahal izateko.
2. Jarduera fisikoen eremuaren aro garaikideko garapena gauzatu duten prozesu historiko nagusiak identifikatzea eta ulertzea, gaur egungo egoera eta joerak ulertzen laguntzeko.
3. Historiaren ezagutzak ahalbidetzen duen perspektiba oinarri hartuz, jarduera fisikoen eremuan agertzen diren joera, interes eta sentsibilitatei buruz informazioa lortzea, gogoeta egitea eta jarrera hartzea.

Irakasgaiak laguntzen du ere graduaren lehendabiziko moduluaren lehen eta bostgarren gaitasunak lortzen (gizarte eta kultura faktoreak ulertzea, eta testuen trataera informatikoa, hurrenez hurren), bai eta seigarrena ere (datuak jaso eta jorrazteko teknologiak). Ondorioz, titulazioaren lehen hiru gaitasunak zein hamaikagarrena ere lortzen laguntzen du (ikaskuntza-objektua, oinarriko formakuntza zientifikoa, jarduera fisikoak baldintzatzen dituzten jokabide eta gizarte faktoreen ulermena eta gizarte-oinarrien jarduera fisikoei aplikatzeari buruzkoak, hain zuzen).

Azkenik, irakasgaia egitasmoetan oinarritutako ikaskuntza kolaboratibo eta dinamikoaren (IKD-PBL) bidez irakasten denez, titulazioaren zeharkako gaitasun guztiak jorrazten dira era zuzen eta zehatzean, eta oso bereziki informazio eta komunikazio teknologia ezberdinen aplikapena.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Sarrera.
 - 1.1. Irakasgaiaren helburu eta gaitasunak.
 - 1.2. Jarduera fisikoen historia. Historiografia-ikuspuntua.
 - 1.3. Objektuaren eraikuntza: jarduera fisikoen eremua.
 - 1.3.1. Jarduera fisikoak eta bere agerpen soziala. Aktibitateak, praktika, ezagutza eta eskuartzea.
 - 1.3.2. Eremuaren garapena: Kirol modernoa. Heziketa fisiko modernoa. Jarduera fisiko artistikoak. Bizi-kalitatearako jarduera fisikoak (osasuna, aisia, gizarte-integrazioa).
2. Kirol modernoaren sorrera eta garapena.
 - 2.1. Kirol joko tradizionaletik kirol modernora. Kiroltzaren ardatzak: Konparagarritasun unibertsala bilatzea. Bortizkeriaren murrizketa. Gizarte hedapena.
 - 2.2. Modernitatearen aurreko kirolaren historia.
 - 2.3. Kirol modernoaren sorrera. Patronised sportetik elkarte kirolera.
 - 2.4. Kirolaren nazioarte- eta gizarte-hedapena.
 - 2.5. Bigarren mundu gerraren aurreko kirol ereduak.
 - 2.6. Bigarren mundu gerra osteko kirol ereduak. Bateratzea eta estatuen sustapena. Hirietako kirola.
 - 2.7. Kaliforniako jarduera fisikoen ereduak eta kirol aisialdiaren hedapena.
 - 2.8. Egungo joerak: kirolaren globalizazio eta merkaturatzea.
3. Heziketa fisikoaren historia.
 - 3.1. Heziketa modernoaren aurrekariak.
 - 3.2. Heziketa fisiko modernoaren sorrera
 - 3.3. Gimnastika nazionalistak.
 - 3.4. Eskola eta gimnastika. Gimnastika analitikoaren hedapena

3.5. Heziketa fisikoaren dibertsifikazioa

- 3.5.1. Esperimentalismo fisiologikoa. Entrenamenduaren eredia.
- 3.5.2. Kirola eta jokia, gimnastikaren disziplinarismoaren aurrez aurre.
- 3.5.3. Eskolaren modernizazioa: eskolako higienetik heziketa integralera.
- 3.5.4. Naturalismoa: gimnasia naturala, eskultismoa, eskolako koloniak.
- 3.5.5. Heziketa fisikoa erregimen erregimen totalitarioetan.
- 3.6. Heziketa fisikoaren korranteak XX. mendeko bigarren erdian.
- 3.7. Hezikera fisikoaren gaur egungo joerak.

Gai praktikoak:

- 1. Gogoeta lana eta argudiatze-idazkera.
- 2. Elkarlana eta talde lanerako prozedurak
- 3. Informazioa bilatzea bibliografia iturrietan eta Interneten, eta informazioaren erabilera. Erreferentzia eta aipuen inguruko arauak.
- 4. Agiri akademikoak testu prozesatzailearekin.

METODOLOGIA

Irakasgaiaren metodologia lankidetzan ezformalean eta Egitasmoetan Oinarritutako Irakaskuntza Kolaboratiboan (PBL) oinarritzen da, irakaskuntza transmisiboa ahal den heinean baztertuz. Ikasleek laukoteetan banatuko dira eta kirol ondare lokala balioesteko egitasmo bat prestatuko dute, irakasgaiaren edukien zati handi bat erabiliz. Beste alde batetik, gainerako edukiei buruzko disertazio laburrak egingo dituzte.

Ebaluazioa eduki teoriko zein praktikoei buruzko banakako kontroletan (%50), eta egitasmoaren zeregin eta entregagaien (%50) balorazioan oinarritzen da. Ikaskide-balorazioak ere egitasmoaren notarako kontutan har daitezke.

Saioen %85ra bertaratzen ez diren ikasleek ezingo dute egitasmorik aurkezu, eta azterketa baten bitartez ebaluatuko zaie. Hala ere, gaitasun berberak lortu behar dutenez, gainerako ikasleek egingo dituzten zereginak prestatzen saiatzen beharko dira eta antzerako egitasmo bat bere kabuz prestatu, egitasmoaren edukiak ere azterketan eskatu daitezkeelako.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		10		5				
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5		15		7,5				

Legenda: M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba %
- Banakako lanak %
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) %
- Lanen, irakurketen... aurkezpena %

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Saioen %85 baino asistentzia handiago duten ikasleentzat (faltak justifikatu behar direlarik):

- Edukien eta disertazioaren inguruko azterketa probak. Banaka. Notaren %50a. Gutxieneko nota, azterketa bakoitzean zein batzbestez: 4 /10.
- Talde egitasmoa gauzatzea (PBL) (ebaluazio jarraia) eta aurkeztea (finala). Taldeka. Notaren %50a. Gutxieneko nota zeregin eta entregagai bakoitzean, zein batz bestez: 4 /10. Notaren zati bat ikaskideen arteko elkar-ebaluaziotik etor daiteke.
- Azterketa, zeregin edo entregagairen batean 4 puntu baino gutxiago lortuz gero, irakasgaiaren nota gehienez 4,9 izango da.

Saioen %85 baino asistentzia txikiago duten ikasleentzat:

Eduki teoriko eta praktikoaren inguruko azterketa. Banaka.3 ordu. Ikasle hauentzat bai saioetan egin diren zereginak bai eta egitasmoa badiu azterketa-gaiak. Beraz, komeni da ikasleak bere kabuz eginak izatea zeregin praktikoak eta egitasmoa, ahal duen heinean.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasgaiaren Moodle gelan agertuko dira.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Almeida, A. S. (2004). Historia social, educación y deporte. Lecturas sobre el origen del deporte contemporáneo. (1ª ed.) Universidad de las Palmas de Gran Canaria.
- Capistegui, F. J. y Leoné, S. (2010) Cien años de relación entre los navarros y el deporte (1901-2001). Pamplona: Eunsa.
- During, B. (1993). La crisis de las pedagogías corporales. Málaga: Unisport.
- Mandell, R. D. (1988) Historia cultural de deporte. Barcelona : Bellaterra.
- Parlebas, P. (1998). Elementos de sociología del deporte. Málaga : Unisport.
- Pastor, J.L. (1997). La Educación Física en España: fuentes y bibliografía básica (1883-1961). Guadalajara: Universidad de Alcalá
- Pastor, J.L. (1997). El espacio profesional de la Educación Física en España: génesis y formación (1883-1961). Guadalajara: Universidad de Alcalá
- Pastor, J.L. (2000). Definición y desarrollo del espacio profesional de la Educación Física en España (1961-1990). Guadalajara: Universidad de Alcalá
- Puxadas, X. (Coord) (2011). Atletas y ciudadanos. Historia social del deporte en España 1870-2010. Madrid: Alianza.
- Rodríguez, J. (2000). Historia del deporte. Barcelona: Inde.
- Salvador, J. L.(2004). El deporte en Occidente. Historia, cultura y política. (1ª ed.) Madrid : Cátedra.
- Vázquez, B. (1989). La educación física en la educación básica. Madrid : Gymnos.
- Zagalaz, M.L. (2001). Corrientes y tendencias de la educación física. Barcelona: Inde.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Collinet, C. (2000). Les grands courants d'éducation physique en France. París: Presses Universitaires de France.
- Defrance, J. (1987). L'excellence corporelle: La formation des activités physiques modernes. 1770-1914. Rennes (France): Presses Universitaires de Rennes ; Revue S.T.A.P.S.
- Gleyse, J. (1995). Archéologie de l'éducation physique au XXe siècle en France. Paris: Presses Universitaires de France.
- Guttmann, A. (1978). From ritual to record: the nature of modern sports. New York NY: Columbia University Press.
- Rauch, A. (1983). Le souci du corps. Histoire de l'hygiène en éducation physique. París (Francia): PUF.

Aldizkariak

- Apunts Educación Física y Deportes.
E.P.S (Éducation Physique et Sports)
Journal of Sport History
Journal of the Philosophy of Sport.
Lecturas: Educación Física y Deportes (<http://www.efdeportes.com/>)
Perspectivas de la Actividad Física y el Deporte .
Quel Corps?
The International Journal of the History of Sport

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK